| 2011KO ABUZTUAREN 25KO OHIKO BILKURAKO AKTA | ACTA SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE 25 DE AGOSTO DE 2011. |
|---|---|
| Irurtzunen, Arakilgo Udaleko bilera aretoan, 2011ko abuztuaren 25ko 20.00tan, Udalbatza biltzen da ez ohiko bilkura ospatzeko deialdiaren arabera. | En Irurtzun, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Arakil, a las 20.00 horas del día 25 de agosto de 2011, se constituye la Corporación a fin de celebrar sesión extraordinaria conforme a convocatoria cursada. |
| Etortzen dira: | Asisten: |
| Presidentea: Ruben Goñi Urroz Jauna. | Presidente: Don Rubén Goñi Urroz |
| Zinegotziak: Francisco Javier Huarte Jauna, Alicia Izco Aldaba Andrea, José Luis Garcia Urbistondo Jauna, Oihana Olaverria Jaca Andrea, Patxi Xabier Astiz Auzmendi Jauna, Beñat Jauregui Solano Jauna. | Concejales: Don Francisco Javier Huarte, Doña Alicia Izco Aldaba, Don José Luís García Urbistondo, Doña Oihana Olaverria Jaca, Don Patxi Xabier Astiz Auzmendi, Don Beñat Jauregui Solano. |
| Idazkaria: Imanol Goñi Razquin Jauna. | Secretario: Don Imanol Goñi Razquin. |
| Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira: | Por orden del señor alcalde, se inicia la sesión siguiendo el orden del día de la convocatoria, siendo tratados los siguientes asuntos. |
| **1. AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.** | **1. APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.** |
| Espedientean, azken bilkurako aktaren zirriborroa ageri da, 2011ko uztailaren 19koa. Alicia Izco Andreak uste du aktaren hirugarren puntuan “erabilera anitzeko gela” islatu beharko litzatekeela. Aldi beren Francisco Javier Huarte Juanak uste du kontzejuari emandako epearen bukaera 2011ko abuztuaren 1a zela islatu beharko litzatekeela aktaren puntu berberean, urgentziaren arrazoia argi gera dadin. | Consta en el expediente el borrador del acta de la sesión celebrada el día 19 de julio de 2011.Doña Alicia Izco considera que debería reflejarse en el punto número 3 la denominación “Sala Multiusos”. Asimismo Don Francisco Javier Huarte considera que en el mismo punto debe reflejarse que la urgencia estaba motivada por la finalización del plazo otorgado al Concejo el 1 de agosto de 2011. |
| Horren ondorioz eta azaldu diren zuzenketekin, **Udalbatzak aho batez erabaki du:** | En consecuencia y con las citadas correciones, el **Pleno acuerda por unanimidad:** |
| - 2011ko uztailaren 19ko bilkuraren akta onartzea. | - Aprobar el acta de la sesión celebrada el día 19 de julio de 2011. |

| | |
|---|---|
| **2. ALKATEAREN EBAZPENAK**<br><br>Azken bileratik gaur arte Alkateak emandako ebazpenen berri eman du: 2011ko 120 ebazpenetik, 2011ko 130 ebazpena arte, biak barne. | **2. RESOLUCIONES DE ALCALDIA**<br><br>El Alcalde procede a la lectura de las resoluciones de alcaldía emitidas desde la última sesión: Desde la Resolución nº 120/2011 hasta la nº 130/2011 ambas inclusive. |
| **3. NAHITAEZKO DESJABETZEAREN ESPEDIENTEA EGIARRETAN**<br><br>Arakilgo Udalak, 2011ko abenduaren 30ean hartu erabakiaren bidez, Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko proiektua (3. fasea) onetsi zuen. Proiektua onesteak berekin dakar gizarte interesaren eta onura publikoaren deklarazioa, horrelaxe agintzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10. artikuluak.<br><br>Arakilgo Udalak, 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran hartu erabakiaren bidez, hasiera batez onetsi zuen Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko proiektuaren 3. faseak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda eta jendaurrean jarri zen 15 egunez, 2011ko 76. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 19an, eta Nafarroako prentsan behar den iragarkia argitaratuta, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.<br><br>Jendaurreko epean, María Angeles Lumbier Lazcozek aurkezturiko alegazioa jaso zen. Hona hemen erantzuna:<br><br>Proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendaren hasierako onespena María Angeles Lumbier Lazcozi jakinarazi zitzaionean, betiko formula erabili zen, hau da, interesdunei jakinarazi zitzaien aukera bazutela erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsoa, gora jotzekoa -Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua- eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko behar ziren | **3. EXPEDIENTE DE EXPROPIACIÓN FORZOSA EN EGIARRETA.**<br><br>Por acuerdo del Ayuntamiento de Arakil de 30 de diciembre de 2010 se aprobó el Proyecto de la obra de Renovación de Redes y Pavimentación (Tercera Fase) de Egiarreta. La aprobación del proyecto conlleva la declaración de utilidad pública e interés social de las obras conforme previene el art. 10 de la Ley de Expropiación Forzosa.<br><br>Mediante acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Arakil de 31 de marzo de 2011 se aprobó inicialmente la relación de bienes y derechos afectados por el Proyecto de Renovación de Redes y Pavimentación de Egiarreta (3ª Fase) y se sometió a información pública por plazo de 15 días, mediante publicación del anuncio oportuno en el Boletín Oficial de Navarra nº 76 de 19 de abril de 2011 y en la prensa Navarra a los efectos de lo dispuesto en el art. 19 de la LEF.<br><br>Durante el plazo de exposición pública se recibió alegación presentada por Doña Maria Angeles Lumbier Lazcoz que se contesta a continuación:<br><br>Cuando se notificó a Doña Maria Angeles Lumbier el acuerdo de aprobación inicial de la relación de bienes y derechos afectados por el proyecto se incluyó la clásica fórmula por la que se informaba a los interesados de la posibilidad de interponer frente a dicho acuerdo los recursos de reposición, alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra y Contencioso-Administrativo, en los plazos correspondientes, a pesar de que se trataba de un acto de trámite por el que se aprueba inicialmente la relación de bienes y derechos afectados y la necesidad de la ocupación y se habilitaba el plazo durante el cual se |

epeetan, nahiz eta tramite egintza bat izan, zeinaren bidez hasiera batez onesten baitzen ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda eta haiek okupatu beharra, eta espedientearen jendaurreko epea irekitzen;

María Angeles Lumbier Lazcozek honela zioen berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen erabaki haren kontra:

Laburbilduz, errekurtso-egileak, zeinak adierazten baitu Toribio Lumbier Galarren eta María Francisca Lazcoz Cenozen oinordekoa dela eta katastroko 10. poligonoko 32 eta 42. lurzatien jabea, hasiera batez onetsitako ondasun eta eskubideen zerrendan ageri baitira biak, honetan oinarritu du bere errekurtsoa:

1. Obra proiektuaren onespena baliogabea dela, ezarritako prozeduratik kanpo egin delako, proiektua ez baita jendaurrean jarri. Horrek, halaber, okupatu beharraren onespenaren eskubide osoko baliogabetasuna ekarriko luke.

2. Onetsi den eraikuntza-konponbideak errekurtso-egilearen ondareari bakarrik egiten dio kalte.

3. Proiektuak ez dio onura publikoari begiratzen, partikular baten onurari baizik.

4. Horrek guztiak esan nahiko luke Udalak egitezko bidea delakoan erori zela.

Horrenbestez, honako hau erantzun da:

**Lehena:** hasteko eta bat, esan beharra dugu ezen 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran hartu erabakia (hasiera batez onetsi zuena, batetik, Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko proiektuaren hirugarren faseak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda, baita ondasun horiek okupatu beharra ere, eta, bestetik, espedientea 15 egunez jendaurrean jartzea), alegazioak aurkezteko epe bat gaitzen duen espedientea irekitzeko egintza denez eta

sometía el expediente a información pública:

Doña Maria Angeles Lumbier presenta recurso de reposición contra dicho acuerdo en los términos siguientes:

En síntesis, la recurrente, que se identifica como heredera de Don Toribio Lumbier Galar y Doña María Francisca Lazcoz Cenoz, y como propietaria de las parcelas 32 y 42 polígono 10 de Catastro, incluidas ambas en al relación de bienes y derechos afectados aprobada inicialmente, basa su recurso en:

1. Nulidad de la aprobación del proyecto de obras por hacerlo al margen del procedimiento establecido al no haber sido sometido dicho proyecto a información pública. Esto a su vez daría lugar a la nulidad de pleno derecho de la aprobación de la necesidad de ocupación.
2. La solución constructiva aprobada constituye un abuso en detrimento exclusivo del patrimonio de la recurrente.
3. El proyecto no atiende a la utilidad pública sino al beneficio de un particular.
4. Por todo ello el Ayuntamiento habría incurrido en “vía de hecho”.

En consecuencia se contesta lo siguiente:

**Primero:** Con carácter previo debemos apuntar que el acuerdo plenario de 31 de marzo de 2011, por el cual se aprueba inicialmente la relación de bienes y derechos afectados por el proyecto de Renovación de Redes y Pavimentación de Egiarreta (Tercera Fase) y su necesidad de ocupación y somete el citado expediente a información pública por plazo de quince días, como tal acto de incoación de un expediente que habilita un plazo para formular alegaciones y que necesariamente deberá culminar con otro que ponga fin al expediente, es un acto de trámite, empleando la terminología clásica, y para diferenciarlo de los resolutorios, por cuanto se limita a poner en marcha un expediente, pero sin concluirlo ni resolverlo, habilitando además un plazo para alegaciones de los interesados, que pertenece por tanto a la categoría de los actos también denominados como actos

espedientearen bukaera ekarriko duen beste egintza baten bitartez burutu beharko denez, tramiteko egintza dela, terminologia klasikoa erabiltzearren eta ebazteko egintzekin ez nahastearren; izan ere, espediente bat abiatu besterik ez duela egiten, hura burutu edo ebatzi gabe, eta, bestetik, interesdunen alegazioetarako epe bat ezartzen duela eta, beraz, egintza instrumentalak edo espedientearen bukaera ekarriko duen ebazpenaren aurretikoak izena ere hartzen duten egintzen kategoriakoa dela (García Enterria irakaslea).

Eta, ezbairik gabe, ezen mota horretako egintzen aurka ezin dela inolako errekurtsorik aurkeztu (ez administrazioarekikoa, ez berraztertzekoa edo gora jotzekoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ezta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere). Horiek horrela, okerrekoa zen delako erabakiaren bukaeran jasotako oharra, errekurtsoa aurkezteko aukera ematen zuena, eta, horrenbestez, ezin dela onartu ezta María Angeles Lumbierrek aurkezturiko berraztertzeko errekurtsoa ere, orain aztertzen ari garena alegia.

Nolanahi ere, horrek ez du galarazi behar aipatu errekurtsoa erabakiaren aurkako alegaziotzat jotzea eta, hain zuzen ere Udalaren oker baten ondorioz agertu zenez errekurtsoa paratzeko aukera ematen zuen oharra, arauzko moduan eta denboran aurkeztutzat jotzea ondorio guztietarako. Horiek horrela, txosten honen hurrengo epigrafeetan aztertu eginen dugu zein diren errekurtso-egileak/alegazio-egileak delako erabakiaren aurka jotzeko azaldu dituen arrazoiak.

**Bigarrena:** hasteko eta behin, errekurtso-egileak/alegazio-egileak irmoki salatzen du obren proiektuaren erabateko edo eskubide osoko baliogabetasuna, legez ezarritako prozeduratik kanpo tramitatu edo onetsi delako, proiektua ez baitzen jendaurrean jarri.

instrumentales o previos a la resolución que ponga fin al expediente (Profesor García Enterria).

Y sin duda que frente a este tipo de actos no cabe formular recurso alguno (ni administrativo – reposición o alzada ante el TAN – ni contencioso-administrativo). Por ello, era errónea la indicación contenida al final del propio acuerdo señalando la posibilidad de recurrirlo, y por ello sería siquiera admisible el recurso de reposición planteado por Doña Maria Angeles Lumbier que estamos analizando.

Ahora bien, esto no debe impedir en modo alguno que se de al citado recurso el carácter de alegación frente al acuerdo en cuestión, y que precisamente por el error del Ayuntamiento al incluir la indicación de la posibilidad de recurrirlo, se deba tener por presentado en tiempo y forma a todos los efectos, entrando por ello en los próximos epígrafes de este informe a analizar los motivos de impugnación u oposición frente al citado acuerdo expuestos por la recurrente/alegante.

**Segundo:** Denuncia la recurrente/alegante en primer lugar y de forma contundente la nulidad radical o de pleno derecho del proyecto de obras por haberse tramitado o aprobado al margen del procedimiento legalmente establecido, toda vez que el mismo no habría sido sometido a información pública. Como consecuencia directa e ineludible de la nulidad que predica del proyecto de obras, que es a su vez el título habilitante para ejercitar la potestad expropiatoria, vendría igualmente viciado de nulidad radical o de pleno derecho el acuerdo de aprobación inicial de la relación de bienes y derechos afectados y la necesidad de la ocupación.

Se echa en falta una mayor claridad y concreción de la fundamentación jurídica en la que apoya la recurrente/alegante su imputación de nulidad absoluta por haberse aprobado el proyecto de obras del procedimiento legalmente establecido al no haber sido sometido a información pública. Y lo decimos porque el escrito tiene evidente contenido y connotaciones jurídicas, como por ejemplo la cita de una reseña

Alegazio-egileak aditzera ematen duenez, obra proiektua, hots, desjabetze ahalmena baliatzeko gaitasuna ematen duen titulua, baliogabea bada, horrek ondorio zuzena eta ezin saihestukoa dakar: erabateko edo eskubide osoko baliogabetasuna izanen lukeela, orobat, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendaren eta haiek okupatu beharraren hasierako onespenak.

Argitasun eta zehaztasun handigoak beharko lirateke errekurtso-egilearen/alegazio-egilearen baliogabetasun salaketa horren oinarri juridikoan, hau da, hark dioenean ezen obra proiektua legez ezarritako prozeduratik kanpo onetsi dela jendaurrean jarri ez izanagatik. Eta hala diogu zeren idazkiak eduki eta konnotazio juridiko nabarmenak baititu, jurisprudentziako aipamen bat egiten denean esate baterako, eta horrek pentsarazten digu ezen legelari batek edo Zuzenbideaz dakien baten batek bederen prestatu duela eta ez arloan ezjakina den batek.

Gure ustez, desjabetze ondorioetarako onura publikoaren eta okupatu beharraren deklarazioa ekarri duen obra proiektuaren onespena, 2010eko abenduaren 30eko osoko bilkuran onetsia, zuzenbidearen araberako da erabat eta, hortaz, ezin gara bat etorri Lumbier Lazcoz andreak berraztertzeko errekurtsoan edo alegazio idazkian azaltzen duen iritziarekin

Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko obra proiektua (hirugarren fasea) obra arrunten proiektua da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 214. artikuluan agertzen den definizioari jarraikiz, eta 35/2002 Foru Legearen 135.2 artikuluak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legera berera igortzen du halakoak tramitatzeko.

Horiek horrela, legezko edo arauzko inongo manurik ez du ezartzen obra arrunten proiektu bat jendaurrean jarri beharra dagoenik, urbanizazio proiektuez bestera (35/2002 Foru Legearen 134. eta 76. artikuluak), azken horiei

jurisprudencial, que nos hace pensar que ha sido elaborado por jurista o al menos por alguien con conocimiento de Derecho y no por un lego en la materia.

A nuestro juicio, la aprobación del proyecto de obras del que se deriva la declaración de utilidad pública y necesidad de ocupación a efectos expropiatorios, adoptada por acuerdo plenario de 30 de diciembre de 2010, es plenamente ajustado a Derecho, y por tanto no podemos compartir la valoración que del mismo se hace en el recurso de reposición / escrito de alegaciones de las Señora Lumbier Lazcoz.

El proyecto de obras de Renovación de Redes y Pavimentación (Tercera Fase) de Egiarreta es un proyecto de Obras Ordinarias conforme a la definición de las mismas que ofrece el art. 214 L.F. 6/90 de Administración Local de Navarra, para cuya tramitación, al art. 135.2 L.F. 35/2002, remite a la propia LFALN.

Así las cosas, ningún precepto legal o reglamentario establece que un Proyecto de Obras Ordinarias deba ser sometido a información pública, a diferencia de lo previsto para el caso de los Proyectos de Urbanización (art. 134 y 76 L.F. 35/2002) en los que obligatoriamente a su aprobación inicial ha de seguir un periodo de información pública (veinte días) y finalizar con su aprobación definitiva, al constituir proyectos de ejecución del planeamiento urbanístico.

En suma, la redacción del proyecto de obras por el técnico competente y su mera aprobación por el Pleno del Ayuntamiento son los únicos requisitos formales o de tramitación exigibles, y obviamente se han respetado en este caso, por lo que no puede predicarse la nulidad de pleno derecho de la aprobación del proyecto de obras por no haber sometido previamente a información pública.

Ni que decir tiene que no siendo nulo el proyecto de obras dicho vicio no puede contagiarse a la aprobación inicial de la necesidad de ocupación, tal y como sostiene la recurrente/alegante, sin perjuicio de que pueda aprovechar esta fase inicial del procedimiento expropiatorio, y en particular el

| | |
|---|---|
| dagokienez ezinbestekoa baita hasierako onespenaren ondotik jendaurreko epe bat zabaltzea (hogei egunekoa) eta, bukatzeko, behin betiko onespena ematea, hirigintzako planeamendua betearazteko proiektuak direnez gero.<br><br>Laburbilduz, teknikari eskudunak obra proiektua prestatzea eta Udalak osoko bilkuran hura onestea dira eska daitezkeen baldintza formal bakarrak eta argi dago ezen dagokigun kasu honetan biak bete direla eta, beraz, ezin dela esan obra proiektuaren onespena eskubide osoz baliogabea dela jendaurrean jarri ez izanagatik.<br><br>Eta esan beharrik ez dago ezen obra proiektua baliogabea ez denez gero, okupatu beharraren hasierako onespenari ere ezin zaiola halako akatsik egotzi, errekurtso-egileak/alegazio-egileak dioen bezala. Hala ere, desjabetze prozeduraren hasierako fase hau, eta bereziki 2011ko martxoaren 31ko erabakian bertan xedatzen zen jendaurreko epea, obra proiektuaz eztabaidatzeko, bestelako aukerak aurkezteko eta behar dituen kexa guztiak aurkezteko baliatzen ahal du, okupatu beharraren ikuspuntuaz soilik bada ere.<br><br>Gogoeta horren ildotik, errekurtso-egileak/alegazio-egileak dio ezen okupatu beharraren deklarazioa bera ere baliogabea izanen litzatekeela zeren eta hura onetsi aurretik obrak ukituko zituen lurrak zehazteko aukera eman behar baitzuen proiektuak, eta ez okupatu beharraren deklarazioa egiteko unean. Eta, hain zuzen ere, horixe egiten zuen obra proiektuak, ukituriko finken identifikazio grafikoa eta deskribatzailea egiten baitzuen, baita xehetasun osoz definitzen ere lurzati bakoitzari zegokion ukipen mota. Horrenbestez, errekurtso-egilearen/alegazio-egilearen kritika bereziki arrazoi gabea da, horri dagokionez.<br><br>Labur esanda, legezko edo arauzko inongo manurik ez duenez ezartzen ezen aztertzen ari | periodo de información pública dispuesto en el propio acuerdo de 31 de marzo de 2011, para cuestionar el proyecto de obras, plantear alternativas al mismo o formular cuantos reparos estime oportunos, aunque solamente desde la óptica de la necesidad de ocupación.<br><br>Al hilo de esta consideración, se afirma por la recurrente/alegante que la declaración de necesidad de ocupación incurriría igualmente en nulidad por cuanto con carácter previo a la misma, el proyecto debió permitir determinar los terrenos que iban a resultar afectados por las obras y no en el momento en se produce la declaración de necesidad de ocupación. Y precisamente es eso lo que hacía el proyecto de obras, ofreciendo tanto gráfica como descriptivamente la identificación de las fincas afectadas y definiendo con todo detalle el tipo de afección que cada parcela iba a sufrir. Por lo tanto, la crítica de la recurrente/alegante en este punto resulta especialmente injustificada.<br><br>En resumidas cuentas, no estando previsto en precepto legal ni reglamentario alguno el sometimiento a información pública de un proyecto de obras ordinarias como el aquí analizado, no cabe reputar dicho proyecto, o su aprobación, como nulos de pleno derecho por haberse apartado del procedimiento legalmente establecido, y por tanto debe decaer el primer motivo de recurso/alegación analizado.<br><br>**Tercero:** Entiende la recurrente/alegante que la solución constructiva aprobada constituye un abuso en detrimento exclusivo del patrimonio de la recurrente. Y es evidente que todo proceso expropiatorio conlleva intrínsicamente la imposición de algún sacrificio al expropiado (privación singular de la propiedad privada o de derechos o intereses patrimoniales legítimos acordada imperativamente).<br><br>Por tanto, la percepción de la Sra. Lumbier Lazcoz es comprensible aunque obviamente, y siempre que dicho sacrificio responda a causa de utilidad pública o interés social, se lleve a cabo por el cauce procedimental adecuado y de lugar a la correspondiente indemnización, será una actuación conforme a Derecho. |

| | |
|---|---|
| garena bezalako obra arrunten proiektu bat jendaurrean egon beharra dagoenik, ezin da halako proiektu bat edo haren onespena eskubide osoz baliogabeak direla esan legez ezarritako prozeduratik aldendu izanagatik, eta, hortaz, indargabetu egin beharra dago errekurtsoan/alegazioan aztertu dugun lehenbiziko arrazoia.<br><br>**Hirugarrena:** errekurtso-egilearen/alegazio-egilearen iritziz, onetsi den eraikuntza-konponbideak bere ondareari bakarrik egien dio kalte. Jakina, desjabetze prozedura orok berez dakar desjabetuaren mota bateko edo besteko sakrifizioaren bat (jabetza pribatuaren edo ondarezko eskubide edo interesen gabetze berezi bat, aginduz erabakitakoa).<br><br>Hortaz, Lumbier Lazcoz andrearen pertzepzioa ulergarria bada ere, argi dago ezen sakrifizio hori zuzenbidearen araberako jarduketa izanen dela baldin eta onura publikoak edo gizarte interesak eragindakoa bada, prozedura egoki baten bidez burutzen bada eta behar den kalte-ordaina izateko aukera ematen badu.<br><br>Errekurtsoaren/alegazioaren testutik ondorioztatzen denez, errekurtso-egileak/alegazio-egileak ordezko beste aukera bat proposatzen du, bere ustez zuzenago eta bidezkoagoa izanen litzatekeelako bide bat zabaltzeko bide horren bi aldetako finkak proportzio berean erabiltzea.<br><br>Planteamendu sinplista hori, ordea, ezin da nagusitu proiektuen egileek onetsi den eraikuntza-konponbidea proposatzerakoan balioetsi eta kontuan hartu zituzten irizpide tekniko eta ekonomikoen gainetik. Eta proiektuaren ardura duten arkitektoek, errealite fisikoa zertan den ikusita, uste badute obra egiteko eta bidea zabaltzeko halako lurzati jakin bat besterik ez dela erabili behar, parean eta bidearen beste aldean dagoena ukitu gabe, irizpide horrexek nagusitu beharko du, zeren halako egoeretan ez baitago desjabetzea ekarriko duen proiektu baten ondoriozko | Del texto del recurso/alegación se desprende una propuesta alternativa por la cual la recurrente/alegante considera que sería más justo y equitativo que la ampliación de un vial se haga a costa de las fincas situadas a cada lado del mismo y en idéntica proporción.<br><br>Este planteamiento simplista no puede sin embargo imponerse a criterios técnicos y económicos que han sido valorados y tenidos en cuenta por los técnicos redactores del proyecto a la hora de proponer la solución constructiva aprobada. Y si a juicio de los arquitectos responsables del proyecto, vista la realidad física, la ejecución de la obra y la ampliación del viario debe hacerse enteramente a costa de una determinada parcela sin afectar a la situada enfrente y al otro lado del vial, ése será el criterio que deba prevalecer porque en tales situaciones no existe un hipotético derecho a la equidistribución de cargas o afecciones derivadas de un proyecto que a su vez va a dar lugar a una expropiación.<br><br>En cualquier caso, se acepta la propuesta alternativa planteada por la Sra. Lumbier Lazcoz y se modifica el proyecto en este punto reduciendo la afección a la parcela nº 32 polígono 10 y estableciendo una nueva afección a la parcela nº 34. Concretamente la ocupación definitiva de la parcela 32 polígono 10 pasará de 46,06 metros cuadrados a 22,18 metros cuadrados con la modificación realizada. Asimismo se establece una nueva afección a la parcela nº 34 polígono 10 con una ocupación definitiva de 23,27 metros cuadrados y una ocupación temporal de 52,33 metros cuadrados.<br><br>**Cuarto:** Otro de los motivos de impugnación o disconformidad de la recurrente/alegante con el acuerdo municipal que aprueba inicialmente la relación de bienes y derechos afectados y la necesidad de ocupación es que a su juicio el proyecto no atiende a la utilidad pública sino al beneficio de un particular.<br><br>No concreta la recurrente/alegante a qué otro particular podría estar tratando de beneficiar el Ayuntamiento con su actuación, aunque del tenor del resto de sus consideraciones cabría pensar en el titular o titulares de |

| | |
|---|---|
| kargak edo ukipenak berdinbanatzeko balizko eskubide bat.<br><br>Nolanahi ere, Lumbier Lazcoz andrearen ordezko beste proposamen hori onartu eta proiektua gune horretan aldatu da, 10. poligonoko 32. lurzatiaren ukipena txikiagotuz eta beste ukipen bat ezarriz, 34. lurzatiri eraginen diona. Zehatz esanda, aldaketa horren ondorioz, 10. poligonoko 32. lurzatiaren behin betiko okupazioa ez da 46,06 metro koadroakoa izanen, 22,18 metro koadrokoa baizik. Era berean, 10. poligonoko 34. lurzatiari dagokion beste ukipen bat ezarri da, 23,27 metro koadroko behin betiko okupazioa dakarrena, baita 52,33 metro koadroko behin-behineko okupazioa ere.<br><br>**Laugarrena:** errekurtso-egileak/alegazio-egileak beste arrazoi bat ere agertu du ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda eta haiek okupatu beharra hasiera batez onesteko udal erabakiaren aurka jotzeko, izan ere haren ustez proiektuak ez du onura publikoa kontuan hartzen baizik eta partikular baten onura.<br><br>Errekurtso-egileak/alegazio-egileak ez du zehazten Udalak zein partikularri egin nahi ote dion mesede bere jardunbideaz, nahiz eta, bere gainerako gogoetak aintzat harturik, pentsatzekoa den bere lurzatien pareko lurren titular edo titularrak dituela buruan, hau da, hasiera batean desjabetu ez ziren arren proiektuaren aldaketaren ondorioz ukituak izanen diren lurzati horien jabeak.<br><br>Berriz esanen dugu: desjabetze orok onura publikoaren edo interes orokorraren bidez justifikaturiko gabetze berezi bat dakar, eta berekin dakar, orobat, desjabetuari behar den kalte-ordain zuzena ematea.<br><br>Itxuraz, zaila da onura publikoa edo interes orokorra zalantzan jartzea, helburua baita herriko bide guztiek edo askok, behintzat, zabalera egokia izan dezaten obrak ukituriko herriko eremu guzti horietara aise sartu ahal | aquellas parcelas enfrentadas a las suyas que en un principio no eran objeto de expropiación pero que tras la modificación del proyecto si se encuentran afectadas.<br><br>Insistimos en que toda expropiación comporta una privación singular que debe estar justificada (en causa de utilidad pública o interés general) y conllevar aparejada la correspondiente y justa indemnización al expropiado.<br><br>La utilidad pública o el interés general parecen difícilmente cuestionables por cuanto se trata de dotar a todas o buena parte de las vías de la localidad de una anchura adecuada permitiendo el acceso sin dificultades a todas las zonas de la localidad sobre las que se actúa, por utilizar expresiones extraídas del propio proyecto.<br><br>Y por tal motivo, aún en el supuesto, de que se pueda considerar que la actuación beneficia muy particularmente a algún vecino (mejorando singularmente el acceso a su finca o de algún otro modo), a falta de otros argumentos y pruebas que desde luego no se aportan con el recurso/alegación y que acredite que ese particular beneficio se hace incluso a costa del interés general, tampoco apreciamos motivos para estimar la reclamación de la recurrente/alegante en este sentido.<br><br>**Quinto:** Especialmente desafortunada nos parece la calificación de la actuación municipal hasta este momento como “vía de hecho”, ya que esa forma de actuar presupone precisamente la ejecución de actos prescindiendo total y absolutamente del procedimiento establecido para ello, y en este caso, y a pesar de la negativa valoración que merezca para la recurrente/alegante, es obvio que el Ayuntamiento se está conduciendo por los cauces habilitados legalmente (aprobación del proyecto de obras que lleva implícita la declaración de utilidad pública, aprobación inicial de la relación de bienes y derechos afectados y necesidad de ocupación y sometimiento a información pública). |

| | |
|---|---|
| izateko, proiektutik beretik hartutako hitzak erabiltzearren.<br><br>Eta, horregatik, jarduketak bereziki-bereziki herritar baten mesederako dela pentsatuta ere (herritar horren finkako sarbidea bereziki hobetzen duelako edo beste moduren bateko mesedea egiten diolako), onura partikular hori interes orokorra kaltetuz egiten dela egiaztatzen duen bestelako argudiorik edo frogarik ez dagoenez, errekurtso/alegazioan bederen ez baita halakoen berri ematen, ez dugu arrazoirik ikusten, horri dagokionez, errekurtso-egilearen/alegazio-egilearen erreklamazioa baiesteko.<br><br>**Bosgarrena:** bereziki desegokia iruditu zaigu Udalaren orain arteko jarduera egitezko bide gisa kalifikatzea, zeren jarduteko modu horretan, preseski, ezarritako prozedurak guztiz eta erabat alde batera utzita gauzatzen baitira egintzak, eta esku artean dugun kasuan, aldiz, errekurtso-egilearen/alegazio-egilearen ustez gaitzesgarria izan arren, garbi dago Udala legez gaituriko bideak erabiltzen ari dela: obra proiektuaren onespena, onura publikoaren deklarazioa atxikia dakarrena; ukituriko ondasun eta eskubideen zerrendaren eta haiek okupatu beharraren hasierako onespena eta jendaurreko epea zabaltzea.<br><br>Bestela esateko, eta esan nahi duguna argituko duten zenbait adibide emateko, hauxe izanen litzateke egitezko bidea: obrak proiekturik gabe edo proiektua eginda baina desjabetze espedienterik gabe gauzatzea. Baina Udalaren orain arteko jarduketari ezin zaio kontzeptu juridiko hori aplikatu. Dena den, errekurtso-egileak/alegazio-egileak badu eskubidea jarduketa horrekin bat ez etortzeko eta antolamendu juridikoaren araberako bitarteko guztiak baliatzeko jarduketari aurka egiteko eta beraren bidezko interesak aldezteko.<br><br>Aurreko guztia ikusita, Osoko **Bilkurak aho** | En otras palabras, y por poner algunos ejemplos que ilustren lo que queremos decir, la “vía de hecho” consistiría en ejecutar las obras de pavimentación sin proyecto, o con proyecto pero sin expediente expropiatorio. Pero no cabe aplicar ese concepto jurídico a la actuación llevada a cabo hasta el momento por el Ayuntamiento, sin perjuicio del derecho de la recurrente/alegante a estar en desacuerdo con ella y a ejercer todos los mecanismos de oposición que el ordenamiento jurídico pone a su disposición para la defensa de sus legítimos intereses.<br><br>Visto cuanto antecede, **el Pleno acuerda por unanimidad:**<br><br>**Primero:** Dar al recurso de reposición de Doña María Angeles Lumbier Lazcoz el carácter y tratamiento de una alegación formulada durante la información pública a la que se ha sometido la aprobación inicial de los bienes y derechos afectados por el proyecto de “Renovación de Redes y Pavimentación de Egiarreta (Tercera Fase) y su necesidad de ocupación y considerarla presentada en tiempo y forma, dándole respuesta formal a todas y cada una de las cuestiones que plantea.<br><br>**Segundo:** Rechazar las alegaciones presentadas por la Sra. Lumbier Lazcoz en su recurso/alegación por los motivos antes expresados, exceptuando la alegación referida a la reducción de la afección de la parcela nº 32 y nueva afección de la parcela nº 34, la cual se acepta y supone la modificación del proyecto en este punto. En consecuencia la afección a la parcela nº 32 pasará de 46,06 metros cuadrados de ocupación definitiva y 60,44 metros cuadrados de ocupación temporal a 22,18 metros cuadrados de ocupación definitiva y 55,93 metros cuadrados de ocupación temporal. Asimismo se establece una nueva afección a la parcela nº 34 de 23,27 metros cuadrados de ocupación definitiva y 52,33 metros cuadrado de ocupación temporal.<br><br>**Tercero:** Aprobar definitivamente la relación de bienes y derechos afectados por el Proyecto de Renovación de Redes y Pavimentación en Egiarreta (Tercera Fase), resolviendo las alegaciones presentadas en |

**batez erabaki du:**

**Lehena:** María Angeles Lumbier Lazcoz andrearen berraztertze errekurtsoa alegaziotzat jotzea eta erabiltzea, Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko proiektuak (hirugarren fasea) ukituriko ondasun eta eskubideen eta haiek okupatu beharraren hasierako onespenaren jendaurreko epean aurkeztutako alegaziotzat, alegia, eta azaltzen dituen auzi orori erantzun formala ematea.

**Bigarrena:** Lumbier Lazcoz andreak bere errekurtsoan/alegazioan aurkezten dituen alegazioak ezestea, arestian azalduriko arrazoiak direla-eta, 32. lurzatiaren ukipena txikiagotzeari eta 34. lurzatiaren ukipen berriari dagokien alegazioa izan ezik, azken hori onartu eta, hortaz, proiektua puntu horretan aldatuko baita. Horrenbestez, honela geldituko da 32. lurzatiaren ukipena: behin betiko okupazioa 46,06 metro koadrokoa izan beharrean, 22,18 metro koadrokoa izanen da; eta aldi baterako okupazioa, berriz, 60,44 metro koadrokoa izan beharrean, 55,93 metro koadrokoa. Era berean, honako ukipen berri hau ezarri zaio 34. lurzatiari: 23,27 metro koadroko behin betiko okupazioa, eta 52,33 metro koadroko aldi baterako okupazioa.

**Hirugarrena:** behin betikoz onestea Egiarretako sareak eta zoladura berritzeko proiektuak (hirugarren fasea) ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, eta aurkezturiko alegazioak azalpen zatian adierazi moduan ebaztea. Onespen horrek berarekin dakar onura publikoaren adierazpena eta ondasunak okupatu beharra.

**Laugarrena:** Nafarroako Gobernuari eskatzea proiektua egiteko ukituko diren ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela deklara dezala, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ondorioak izan ditzan. Kanpoko obrek ukituko dituzten lurrak okupatzea presakoa da zoladura lanetarako, negua etorri

el sentido señalado en la parte expositiva, quedando implícita en la aprobación del proyecto la declaración de utilidad pública y necesidad de ocupación.

**Cuarto:** Solicitar al Gobierno de Navarra la declaración de urgencia en la ocupación de los bienes y derechos afectados por la ejecución del proyecto, a los efectos previstos en el artículo 52 y siguientes de la Ley de Expropiación Forzosa. La urgencia en la ocupación de los terrenos de las obras exteriores se fundamenta en la necedad de actuar con prontitud en el pavimento antes de la llegada del Invierno. Los graves problemas que se dan año tras año con la nieve y las situaciones de peligro que se generan en la zona objeto de expropiación requieren una actuación inmediata.

**Quinto:** Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra, en la prensa Navarra, insertarlo en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificarla a los alegantes.

4. **MEJORAS DE LA OBRA DE RENOVACIÓN DE REDES Y PAVIMENTACIÓN DE EGIARRETA**.

El Alcalde explica a la Corporación cómo en el expediente de adjudicación de la obra de Renovación de Redes y Pavimentación de Egiarreta se planteó la posibilidad de ejecutar una serie de mejoras. En consecuencia se mantuvo una reunión con el Concejo de Egiarreta en la que el Concejo trasladó al Ayuntamiento las actuaciones que podrían realizarse con el importe correspondiente a las mejoras. Dichas actuaciones fueron informadas por el arquitecto asesor del Ayuntamiento y se someten ahora a la valoración del Pleno del Ayuntamiento.

Hechas estas consideraciones el Pleno acuerda por unanimidad:

**1º.** Aprobar las mejoras propuestas por el Concejo de Egiarreta.

**2º.** Incluir dichas mejoras en el Contrato Administrativo a firmar con el adjudicatario de la obra de Renovación de Redes y Pavimentación de Egiarreta.

aurretik lehenbailehen egin behar direlako. Obrari berehala ekin behar zaio, desjabetu beharreko eremuan elurrak urtez urte eragiten dituen arazo larriak eta sortzen diren arriskuak saihestearren.

**Bosgarrena:** erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako prentsan argitaratzea, Udalaren iragarki-oholean paratzea eta alegazio-egileei jakinaraztea.

4. **EGIARRETAKO UR-HORNIDURA ETA ZOLADURA BERRITZEKO OBRAKO HOBEKUNTZAK.**

Alkateak azaltzen dio Udalbatzari nola Egiarretako ur-hornidura eta zoladura berritzeko obra ematerakoan, hobekuntza batzuk egiteko aukera aztertu zen. Honen ondorioz Egiarretako Kontzejuarekin bilera bat egin zen eta bertan Kontzejuak berak hobekuntzei dagokien diruarekin ekin batzuk proposatu zituen. Udaleko arkitektoak informatu zituen Kontzejuak proposatutako ekimenak. Orain Udalbatzak informe aztertu eta gero baloratu behar ditu hobekuntzak.

Gaia aztertu ondoren, **Udalbatza aho batez erabaki du:**

**1**º. Egiarretako kontzejuak proposatutako hobekuntzei onespena ematea.

**2**º. Egiarretako ur-hornidura eta zoladura berritzeko obrako kontratuan azaldutako hobekuntzak barneratu.

5. **ALKATEAREN KONTRATUA ETA ZINEGOTZIEI ORDAINKETAK.**

Idazkariak azaltzen dio Udalbatzari bi udal taldeek eskatuta txosten bat prestatu duela alkatearen kontratua eta zinegotziei ordainketak azaltzeko helburuarekin.

Laburbilduz, gaur egun Arakilgo Alkateak 11.304,24 euroko soldata brutoa jasotzen ari da, 12 pagetan. 942,02 euro brutoak hilabetean eta 787,54 euro netoak astean 15 orduko lana egiteagatik.

5. **CONTRATO DEL ALCALDE Y PAGOS A CONCEJALES**

El Secretario Municipal explica a la Corporación que a solicitud de los dos grupos municipales ha redactado un informe sobre el contrato del Alcalde y las Retribuciones a los Concejales.

En resumen, en la actualidad el Alcalde del Valle de Arakil recibe un sueldo bruto de 11.304,24 euros distribuidos en 12 pagas mensuales de 942,02 euros brutos y 787,54 euros netos por una dedicación de 15 horas semanales.

Asimismo, los Concejales reciben una aportación anual en concepto de Dietas y Kilometraje que asciende a la cantidad de 1.662,56 distribuidos en dos abonos semestrales de 831,28 euros. El Gobierno de Navarra compensó económicamente en el año 2011 al Ayuntamiento de Arakil por sus retribuciones a cargos electos con una aportación de 16.090,25 euros. Por tanto el esfuerzo económico del Ayuntamiento por la retribución a sus cargos electos asciende a la cantidad de 6.245,85 euros.

Hechas estas consideraciones, **el Pleno acuerda por unanimidad:**

**1º.** Mantener el régimen de retribuciones a los cargos electos de Arakil.

**2º.** Publicar el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Navarra.

6. **DEMANDA DE VIVIENDAS PROTEGIDAS EN ARAKIL.**

El Alcalde toma la palabra para explicar que ante la posibilidad de adquirir un terreno en Satrustegi para el desarrollo de VPO resulta imprescindible conocer la demanda actual de este tipo de vivienda en el Valle de Arakil.

Se inicia un debate en el que participan todos los Concejales.

**El Pleno acuerda por unanimidad:**

- Realizar una consulta entre los vecinos y vecinas de Arakil con el fin

Aldi berean, Zinegotziek urtero jasotzen duten diru-laguntza, dietak eta kilometrajea, 1.662,56 eurokoa da, bi zatitan ordainduta, 831,28 euroko ordainketekin hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuak 2011 urtena 16.090,25 euroko diru-laguntza eman dio Arakil Udalari bere zinegotziei ordainketak egiteko. Beraz Udalak egiten duen benetako ahalegina bere zinegotziei ordaintzeko 6.245,85 eurokoa da.

Gaia aztertu eta gero, **Udalbatzak aho batez erabaki du:**

**1º**. Arakilgo zinegotziei ordainketak egiteko erregimena mantentzea.

**2º.** Nafarroako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzea.

6. **ETXEBIZITZA BABESTUAK ESKURATZEKO ESKAERA ARAKILEN.**

Alkateak azaltzen dio Udalbatzari Satrustegiko lur-zatia erosteko aukeraren aurrean Etxebizitza babestuak garatzeko helburuarekin ezinbestekoa dela ezagutzea gaur egungo eskaera horrelako etzebizitzak eskuratzeko Arakilen.

Eztabaida hasi da eta zinegotzi guztiek parte hartzen dute.

**Udaltzak aho batez erabaki du:**

- Arakilen gaur egungo etxebizitza babestua eskuratzeko eskaera ezagutzeko helburuarekin kontsulta bat egitea.

7. **ALKATEAREN TXOSTENAK**

Alkateak Udalbatzari azaltzen dizkio hurrengo gaiak:

- Aixitako esku-hartze arkegologikoa.
- Hiriberriko kontzejuarekin hitzarmena
- Anfasekin bilera.
- Ondare materiagabea sortzeko elkarrizketak.
- Tentsio Handiko linea berria.

de conocer la demanda actual de VPO en Arakil.

7. **INFORMES DE ALCALDÍA**

El Alcalde toma la palabra para informar a la Corporación sobre las siguientes cuestiones:

- Intervención arqueológica en Aixita.
- Convenio con el Concejo de Hiriberri.
- Reunión con Anfas.
- Entrevistas para generación de Patrimonio inmaterial.
- Proyecto de Línea de Alta Tensión.
- Buzón de sugerencias.
- Reuniones con el Gobierno de Navarra.

8. **RUEGOS Y PREGUNTAS**

- Doña Oihana Olaverria propone tener una reunión con Servicios Sociales.
- El Alcalde propone hacer una presentación de los diferentes servicios existentes a los Presidentes de los Concejos.

| | |
|---|---|
| - Iradokizun buzoia.<br>- Nafarroako Gobernuarekin bilerak.<br><br>**8. GALDERAK ETA ESKAERAK.**<br><br>- Oihana Olaverria Andreak Zerbitzu Sozialekin bilera bat izatea proposatzen du.<br>- Alkateak Kontzeju Presidente guztiei dauden zerbitzu guztien aurkezpena bat egitea. | |
| Egun bereko 21:30tan gai gehiago ez dagoenez, Alkate Jaunak bukatutzat ematen d ubilera. Nik, idazkaria naizen aldetik, akta hau jasotzen dut eta egon diren zinegotziek haien adostasuna azaltzen dute haien sinaduraren bidez. | Siendo las 21:10 horas del mismo día y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por terminada la sesión, de la que yo, el Secretario levanto la presente acta que firmanlo concejales asistentes manifestando así su conformidad. |